

EUSKAL PRESOK. Espetxearen esku dago agindua betetzeko era

Miaketak, zenbaketak eta bisita arauak zorroztu dituzte zenbait espetxetan

Espainiako espetxe legediak dioena «zapaldu» dutela esan du Etxerat-ek

Erredakzioa | **DONOSTIA**

Espainiako eta Euskal Herriko espetxeetan neurriak zorroztu direla jakinarazi du Etxerat elkarteak. Espetxe Erakundeetako Zuzendaritzak zenbaketak areagotzea, miaketa bereziak egitea eta elkarbizitzarako bisitetan arreta berezia jartzea eskatu du. Espetxe bakoitzaren esku utzi du arau horiek aplikatzeko era. Etxerat-ek gogor salatu ditu, izan ere «Espainiako estatuko espetxe legediaren aurkakoak» direla dio.

Espainiako espetxe legediak 25. artikuluko 1. puntuan dio espetxe guztietan ordutegi finko bat egongo dela eta hori zorrotz bete beharko dela; 2. puntuak dio egunero gauez zortzi orduko atsedena hartzeko espetxeko denbora antolatu behar dela. Era berean, 77. artikuluko 1. puntuak dio Espetxe Erakundeetako Zuzendaritzak kartzelan dagoenari jakinarazi behar diola barruan dauden ordutegiak, eta espetxe barruan espetxeratu bakoitzak dituen betebeharrak eta ordu libreak ere zehaztu behar dizkio zuzendaritzak; 2. puntuak dio gauez zortzi orduz atsedeen hartzea bermatu behar dela, eta gaineratzen du, espetxeratuak, gutxienez bi ordu izan behar dituela egunean bere gauzetarako.

Dena den, hainbat kartzeletan, Espetxe Erakundeetako Zuzendaritzak berriki agindu duena jarri dute abian. Etxerat elkarteak honako espetxeetan aginduak betetzen hasi direla jakinarazi du:

NEURRI BERRIAK

Espetxe Erakundeetako Zuzendaritzaren aginduak

Espetxe Erakundeetako Zuzendaritzak abenduaren 23an Espainiako eta Euskal Herriko espetxeetako zuzendariei hiru agindu eman zituen. Espetxe bakoitzaren esku utzi zuen agindu horiek aplikatzeko modua. Hona-koak dira:

- 1** Orduro, gauez eta egunez, espetxe barruan zenbaketak egitea.
- 2** Miaketa berezi eta zorrotzak egitea.
- 3** Elkarbizitzako bisitetara sartu eta ateratzerakoan arreta berezia jartzea.

A Laman, abenduaren 23, 24 eta 25 gauean hiru zenbaketa egin zituzten: goizeko 1:00ean, 3:00etan eta 7:00etan. Euskal presoek neurri horiek salatzeko epaitegira jo zuten, ondorioz, hasieran ez zuten jarraitu neurri horiek aplikatzen. Baina, abenduaren 30ean berriro hasi ziren gauez zenbaketak egiten.

Bonxan, Mansillan eta Ocaña lln ziegak miatu zituzten.

Huelvan, abenduaren 28, 29 eta 30ean, gauetan, orduero euskal presoak zenbatu zituzten. Ondorioz, abenduaren 30ean epaitegira jo zuten.

Puerto Ien, euskal presoek ziegak bi aldiz miatu zituzten abenduaren 27an, gauean.

Teruelen, abenduaren 24tik 30era, gauero kontatu zituzten euskal presoak; abenduaren 30ean 8 aldiz.

Valdemoron eta Villabonan, abenduaren 24 eta 25ean ziegak gutxienez bi aldiz miatu zituzten.

Etxerat elkarteak Espetxe Erakundeetako Zuzendaritzak «berriro bere legeak zapaldu» dituela salatu du. Horretaz gain, Euskal Herriko erakunde eta alderdi politikoei galdetzen die ea noiz arte egongo diren «euskal preso politikoen eta senitartekoen eskubide zapalaketak isiltzen» eta isiltze horrekin «eskubide zapalketa horiek ahalbidetzen».

Espetxeetan Barandallaren aldeko protestak ari dira egiten

Bautista Barandallak kolitis ulteradun gaitz sendaezina du. Iaz, abuztuaren 13an Zaragozatik Iruñera ekarri zuten, gerroztik, 11 aldiz eraman dute ospitalera. Azken ebakuntzan 25 kilo galdu zituen eta oraindik ez da bere onera etorri, halere, beste ebakuntza bat egiteko frogak egiten ari zaizkie.

Gaitz sendaezina izanda, 92. artikulua lehenbailehen aplikatzeko exijitzeko protestaldi luzeak burutzen ari dira euskal presoak. Etxerat-ek jakitera eman duenez «borrokaldi ugari burutzen» ari dira. Besteak beste, Soto del Realen, Aranjuez, Navalcarneron eta Martutenen iazko udaratik txandakako gose grebak egiten ari dira. Alcala Mecon, emakumeen moduluan, asteburuetan barauak eta elkarretaratzeak egiten dituzte, protesta horiengatik patiora ateratzea galarazi diete. Iruñean, euskal presoek gose greba mugagabea hasi zuten asteartean.

IHESALDI SAIOA. Ikerketa abiatu dute

Zuzen Taldeak gezurtatu egin du La Sante ko ustezko ihesaldiarekin lotura izatea

Agentziak | **PARIS**

Pariseko La Sante espetxean ustez euskal presoak prestatzen ari ziren ihesaldiarekin ez duela inolako loturarik izan jakinarazi zuen atzo Zuzen Ekintza Taldeak. Izan ere, atzo, ihesaldiari buruzko berri ugari aipatu ziren hainbat hedabidetan. Zuzen Ekintza Taldearen eta Demoen izenak aipatu zituzten, abenduaren 21ean La Santen bi taldeek egindako ekimenaren haritik, ihesaldi saiakerarekin lotu asmoz.

Berri horien arabera, DNAT-ek (Terrorismoaren kontrako dibisio nazionala) eta Parisko Terrorismoaren aurkako Fiskaltzak ikerketa abiatu dute. Presoek ihesean

lehergaiak erabiltzeko asmoa zutela eta horiek kanpoko «laguntzaileek» helarazi behar zizkietela aipatu zuten iturri horiek, eta «laguntzaile» horiek zeintzuk izan zitezkeen jakiteko ikerketa abiatu dutela.

Sei preso izan ziren, eta ez bost, ustez ihesa prestatzen aritu zirenak. Seiak urtarrilaren 2ko gauean sakabanatu zituzten: Xabier Garcia Gaztelu Fleury Merogis kartzelara, Asier Oiarzabal Fresnecera, Iñaki Lizundia eta Angel Otxoantesana Bois d'Arcyra, Angel Mari Lopez Villepintera eta Antxon Sasiain Osnyra. Presoen artean mezuak atzeman ostean ohartu ziren espetxeko arduradunak ihesaldi saioaz.

EPAILEAK. Orri batzuk atzeman dituzte

Le Vert epailearen kontrako atentatua prestatzen ari zirela dio telebista batek

Agentziak | **PARIS**

Frantziako telebista kate batek atzo jakinarazi zuenez, Laurence Le Vert epailearen kontrako ustezko atentatu plan bat jasotzen zuten dokumentuak aurkitu ditu Poliziak Ibon Fernandez Iradi ustezko etakidearen gordeleku batean. Fernandez Iradik ihes egin zuen Baionako komisaldegitik abenduan.

Telebistaren arabera, gor-

delekuan euskaraz idatzitako orriak aurkitu zituzten, liburu batean gordeta. Bertan, Le Verten ordutegia eta ibilbidea, bere autoaren matrikularen zenbakia, eta bere bizkartzainaren zenbakiak zeuden. Atentatua Justizia Jauregitik bere etxerako bidean izango litzateke. Ikerketako iturrien ustez, orriek ez zuten jasotzen atentatu plana, epailearen «segimenduari» buruzko datuak baizik.

AYUNTAMIENTO DE LA ANTEIGLESIA DE LEIOA ELIZATEKO UDALA	
IRAGARKIA LEIOAKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN ZATIA ALDATZEA, GAZTELUBIDE KALEAREN ALBOAN DAGOEN ESKOLA-EKIPAMENDU EREMUA ARAUTZEKO ALDATZEA DA ZATI HORI. 02-12-30an iragarki hau bidali da Bizkaiko Aldizkari Ofizialera, bertan argitaratu dezaten: "02-12-26an egindako bileran hartutako 3 zenbakiko erabakiaren bidez hasieran onetsi zen Hiri Antolamenduko Plan Orokorra aldatzeko espedientea, horrela Gaztelubide kalearen alboan dagoen eskola-ekipamendu eremua arautu ahal izateko. Ekainaren 23ko 2.159/1978 EDak onetsi zuen antolamenduko araudiaren 161 eta 128. artikuluetan ezarritakoaren arabera, espedientea ikusgai egongo da udalaren bulego teknikoaren egoitzan, udallexeko 3. solairuan (Elexalde auzoko 1ean) eta Cianoplan enpresan (Getxon, Plentziako hiria kaleko 6, beheko solairuan) hilaletako epean, iragarki hau BA0ean argitaratu eta biharamunetik zenbatuta. Epe horretan egokitzat jotzen diren alegazioak aurkeztu ahal izango dira. Alegazioak aurkeztu ezean, espedientea behin-behinean onetsitakotzat hartuko da."	ANUNCIO MODIFICACION PUNTUAL DEL PLAN GENERAL DE ORDENACION URBANA DE LEIOA CON OBJETO DE REGULARIZAR LA ZONA DE EQUIPAMIENTO ESCOLAR PROXIMO A LA CALLE GAZTELUBIDE Con fecha 30-12-02 se ha remitido al Boletín Oficial de Bizkaia para su publicación el siguiente anuncio: "Mediante Acuerdo Plenario nº 3, adoptado en la sesión celebrada el día 26-12-02, se aprobó inicialmente el expediente de Modificación del Plan General de Ordenación Urbana, en el sentido de regularizar la zona de equipamiento escolar próximo a la calle Gaztelubide. De conformidad a lo señalado en los arts. 161 y 128 del R.D. 2.159/1978, de 23 de junio, que aprueba el Reglamento de Planeamiento, durante el plazo de un mes contado a partir del día siguiente de la publicación del presente anuncio en el B.O.B., el expediente estará a disposición de quienes deseen consultarlo en las dependencias de la Oficina Técnica municipal, sitas en la 3ª planta de la Casa Consistorial (Barrio Elexalde nº 1), y en la empresa Cianoplan, ubicada en Getxo, c/Villa de Plencia nº 6-bajo. En el plazo señalado podrán presentarse las alegaciones que se estimen oportunas. En el supuesto de carencia de alegaciones se entenderá aprobado con carácter provisional."
Leioan, 2002ko abenduaren 31an ALKATEA, Sin. Karmelo Sainz de la Maza Arrola	Leioa, a 31 de Diciembre de 2002 EL ALCALDE, Fd. Karmelo Sainz de la Maza Arrola

Oñatiko Udala

2002ko abenduaren 26ko Udal Gobernu Batzordearen erabakiz ondorengo kontratazioa onartu zen:

- Oñatiko Kiroldegiko taberna-ren errenta (bigarren deialdia).

Baldintza Plegua: 2002ko azaroaren 14ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu da (216 zkia)

Baldintza Plegua: Zubikoa Kiroldegiko Bulego Orokorretan goizeko 11etatik 14:00etara jaso ahal izango da.

Eskaintzak aurkezteko azkenengo eguna: urtarrilaren 24a.

Oñati, 2003ko urtarrilaren 7an Alkateak

Oñati 2003ko urtarrilaren 7an Udal Idazkariak

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura Sailak diruz lagundutako egunkaria